

**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAREN ESPARRU SOZIOEKONOMIKOAN
2025-2026 URTEETAN EUSKARA SUSTATZEKO KONTRATUA ARAUTZEN DUEN
AGIRIA**

Espedientea: 0005-CP01-2025-000034

Kontratazio organoa: Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko kudeaketako zuzendaritza.

Unitate kudeatzailea: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua.

AURKIBIDEA

I. ZATIA – BALDINTZA PARTIKULARRAK	4
1. KONTRATUAREN XEDEA	4
2. SORTEN EDUKIA ETA DESKRIBAPENA	4
3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA	5
4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA	5
5. GAUZATZEKO EPEA	5
6. LIZITAZIOAREN GEHIENENKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA	5
7. PERTSONA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK	6
8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA	7
9. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA	7
10. ESKAINTZEN AURKEZPENA	8
11. KONTRATAZIO MAHAIA	12
12. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA	13
13. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK	14
14. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	17
15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA	19
16. KONTRATUA EGIKARITZEA	19
17. LANEN ORDAINKETA	20
18. KONTRATUA BETETZEA	20
19. JABETZA INTELEKTUALA	22
20. DATUAK BABESTEIA ETA KONFIDENTZIALITASUNA	23
21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK	24
II. ZATIA – PRESKRIPZIO TEKNIKOAK	25
22. 1. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARAZ BARRA-BARRA MARKA SUSTATZEKO, HEDATZEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO JARDUERAK EGITEA NAFARROAKO HAINBAT ESKUALDETA MERKATARITZAKO, OSTALARITZAKO ETA ZERBITZU PROFESIONALETAKO ESTABLEZIMENDUETAN.	25
s23. 2. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARAREN ETA NAFARROAKO EREMU SOZIOEKONOMIKOAREN INGURUKO JARDUNALDI BAT ANTOLATZEA ETA EGITEA.	31

24. 3. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IPARRALDEKO SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN.	34
25. 4. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA IRUÑERRIKO SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN.	37
26. LOTE GUZTIETARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKO KOMUNAK.....	40
III. ZATIA – ERANSKINAK	42
I. ERANSKINA.....	43
II. ERANSKINA.....	46
III. ERANSKINA	47
IV. ERANSKINA	47
V. ERANSKINA	49

I. ZATIA – BALDINTZA PARTIKULARRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da alderdien eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzten akordio eta baldintzak ezartzea, arlo juridikoan, administratiboan, ekonomikoan eta teknikoan, Nafarroako Foru Komunitateko sektore pribatuko enpresa eta establezimenduetan euskara sustatzeko jarduerak kontratatzeke orduan kontuan hartu beharrekoak. Horretarako, lau sorta definitzen dira, gauzatu nahi diren jarduketa-ildoei dagozkienak, dokumentu honen II. zatian jasotzen diren preskripzio teknikoen arabera.

Batzordearen 2007ko azaroaren 28ko 213/2008 EE Erregelamenduaren arabera, hona CPV kodeak:

72313000-2 Datuak biltzeko zerbitzuak.

72316000-3 Datuak aztertzeke zerbitzuak.

79950000-8 Erakusketak, azokak eta kongresuak antolatzeke zerbitzuak.

79420000-4 Kudeaketarekin lotutako zerbitzuak

Kontratua administratiboa izanen da eta kontratugileak honako hauen mende geldituko dira: baldintza-agiri hau, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

2. SORTEN EDUKIA ETA DESKRIBAPENA

Kontratua lau sortatan dago banaturik:

1. sorta (18.000 €, BEZa barne, 2025erako, eta 18.000 €, BEZa barne, 2026rako).

Euskaraz barra-barra marka sustatzeko, hedatzeko eta haren jarraipena egiteko jarduerak egitea Nafarroako hainbat eskualdetako merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu profesionaletako establezimenduetan.

2. sorta (8.000 €, BEZa barne, 2025erako, eta 12.000 €, BEZa barne, 2026rako).

Euskararen eta Nafarroako eremu sozioekonomikoaren inguruko jardunaldi bat antolatzea eta egitea.

3. sorta (22.000 €, BEZa barne, 2025erako, eta 22.000 €, BEZa barne, 2026rako).

Euskara sustatzea eta bultzatzea Nafarroako Foru Komunitateko iparraldeko sektore pribatuko enpresetan.

4. sorta (22.000 €, BEZa barne, 2025erako, eta 22.000 €, BEZa barne, 2026rako).

Euskara sustatzea eta bultzatzea Iruñerriko sektore pribatuko enpresetan.

Sorta bakoitzaren eduki xehatua eta egin beharreko lanak agiri honen II. zatian (PRESKRIPZIO TEKNIKOAK) daude zehazturik.

Edozein enpresa, bere kaudimen tekniko eta ekonomikoaren arabera, sorta batera edo batzuetara aurkez daiteke, eta sorta batean edo batzuetan adjudikazioduna izan. Enpresa adjudikaziodun bat baino gehiago badira guztira, Euskarabideak behar den koordinazioa ziurtatuko du sortetako lanak garatzeko orduan.

Kontuan harturik programaren ezaugarri teknikoak, ez da sortarik gordeko Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 36. eta 38. artikuluetan jasotzen diren entitate motetarako.

3. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatzuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

4. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Agiri honetako kontratazioa Europar Batasuneko atalasetik beherako prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 30., 37., 72. eta 89. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

5. GAUZATZEKO EPEA

Lau sorten kontratua gauzatzeko epea kontratua formalizatzen den egunetik 2026ko ekainaren 30era artekoa izanen da.

6. LIZITAZIOAREN GEHIENEO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatua, 119.008,28 eurokoa da (BEZik gabe): 29.752,07 eurokoa 1. sortan, 16.528,93 eurokoa 2. sortan, 36.363,64 eurokoa 3. sortan eta 36.363,64 eurokoa 4. sortan.

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua 144.000 eurokoa da (BEZa barne): 36.000 eurokoa 1. sortan, 20.000 eurokoa 2. sortan, 44.000 eurokoa 3. sortan eta 44.000 eurokoa 4. sortan.

2025eko gastuen aurrekontuko "Eremu sozioekonomikoaren sustapen-programak" B30002 B3200 2279 334102 partidaren kontura ordainduko da, bai eta 2026ko ekitaldiko gastuen aurrekontuan gaitzen den aurrekontu-partida baliokidearen kontura ere, betiere kreditu egokia eta nahikoa badago.

Ez da onartuko lizitazioaren aurrekontu horretatik goitiko eskaintzarik.

Ez da onartuko prezioak berrikusterik kontratua indarrean dagoen bitartean.

7. PERTSONA EDO ERAKUNDE LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Kontratazio prozeduran parte hartzen ahalko dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerriarrek, kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez badute, interes gatazkan ez badaude eta eskatutako kontratu-prestazioa exekutatzeko behar adinako kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala dutela frogatzen badute. Aipatutako beharkizunak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen denean bete beharko dira.

Euskarabideak kontratuak egiten ahalko ditu aldi baterako enpresa-elkarteekin edo talde batean elkarturik parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan xedatzen diren baldintzetan. Baterako parte-hartze hori agiri pribatu baten bidez frogatuko da, non lizitatzailerik batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bai eta bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu ere; azken horrek ahalmenak izanen ditu parte-hartzaile guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko, hura azkendu arte.

Aldi baterako elkarte batean edo talde batean parte hartzen duten lizitatzailerik betebeharrak solidarioa izanen dute.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkezten duten enpresek ezin izanen dituzte bakarkako proposamenak aurkeztu sorta berean, ez eta aldi baterako beste elkarte batean sartuta edo beste enpresa batzuekin elkartuta ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko enpresa lizitatzailerik arau-hausleak sinatzen duen eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako elkartean aurkezten diren enpresek eta taldean parte hartzen duten pertsonak adierazi beharko dituzte batasun horiek osatzen dituzten kideen izenak eta inguruabarrak, baita kide bakoitzaren partaidetza ere, eta adierazi beharko dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako elkarte gisara formalki eratzeke kontratuaren adjudikaziodun izatekotan. Kide bakoitzak frogatu beharko du jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Baldintza horiek lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpen batekin frogatuko dira. Adierazpen hori agiri honen I. eranskinean dago.

8. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitatzailleak kontratua exekutatzeke kaudimen ekonomikoa eta finantzario nahikoa duela frogatu beharko du, hau da, enpresak egoera ekonomikoa eta finantzario egokia duela, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratuaren behar bezalako exekuzioa.

Kontratu honetan, froga hori adierazpen baten bidez egingen da, non adieraziko baita negozio-bolumen globala sorta bakoitzaren zenbateko bera edo handiagoa izan dela, jarduera-arlo berean, azken hiru ekitaldietako (2022-2023-2024) batean. Aipatutako adierazpena I. eranskinean gehituko da. Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoi.

Baterako parte-hartzeetan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa frogatuko dira batera aurkezten diren enpresetako edozeinek emandako datuekin, edo enpresa guztien datu metatuekin.

9. KAUDIMEN TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Lizitatzailleak kaudimen teknikoa frogatu beharko du, hau da, kontratua behar bezala betetzeko gaitasun tekniko eta profesionala duela.

Kaudimena frogatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Azken hiru urteetan (2022, 2023 eta 2024) egindako zerbitzu nagusien zerrenda, lizitatzen den sortaren xedeari dagokion mota edo izaera berekoa, honako hauek adierazita: zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa edo pribatua; zuzenbidean onartutako edozein froga erabiliko da zerbitzuak ziurtatzeko.

Exekuzio handieneko urtean metatutako zenbatekoak lizitatzen den sortaren % 70ekoa edo handiagoa izan behar du.

- Proiektuaren zuzendaritzaz eta koordinazioaz arduratzen den pertsonari dagokionez, titulazio akademikoak (unibertsitate-titulua eta euskararen C1 maila frogatzen duen titulua) aurkeztea, eta antzeko jardueren koordinazioan gutxienez 2 urteko esperientzia profesionala duela frogatzea.
- Kontratu honetako lanak egingen dituzten pertsona guztiei dagokienez, euskararen C1 maila (edo antzekoa) frogatzen duen titulua aurkeztea, eta antzeko lanetan gutxienez 6 hilabeteko esperientzia profesionala dutela frogatzea.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari emandako laguntza zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, Gobernuarendako egindako zerbitzuak aipatzea.

10. ESKAINTZEN AURKEZPENA

10.1. TOKIA ETA EPEA

Proposamenak Lizitazio Elektronikoen Nafarroako Plataformaren (PLENA) bidez soilik aurkeztu beharko dira. Era berean, interesdunekin egin beharreko komunikazio guztiak eta tramiteetako gainerako jarduketak aipatutako plataforman egingen dira.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalko da PLENARA; handik, interesa duen edonork deskargatzen ahalko du mahaigaineko aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak prestatzen eta aurkezten ahal dira, gutun-azal digitalaren bidez, bai eta gordailu seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENAREN bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa egingen duenaren mahaigainean zifratzen dira zifratze mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, gordailu seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea lizitaziorako iragarkian finkatuko da, eta gutxienez 15 egunekoa izanen da, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Gutun-azalak irekitzeko unean epea kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, arrastoa baliozkotu egingen da.

Arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barruan aurkeztu bada, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki egingen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu edo eskaintza luzatutako 24 orduko epetik kanpo jaso bada, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzailerak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntean gorabehera teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzaileraren ezagutza ezak edo plataformarekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta baztertzea ekarriko dute; gauza bera gertatuko da eskaintza ezarritako bidea ez den batetik aurkeztuz gero.

10.2. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Enpresa lizitatzailerak PLENak eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon behar dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, PLENan jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalorde aski izan beharko dute.

Sinadura elektroniko aitortuarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Sinadura Elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean eta kontratazio publiko elektronikoaren gainerako xedapenetan xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari eranstean zaion banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-eko tamaina izan behar du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, haren dokumentu guztiak barne, 100 MB-ekoa izan behar da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakizkiokeen fitxategien kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu PLENak eskaintzaren aurkezpenean eranstean diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip); bestelako formatuak dituzten fitxategiak erantsi nahi badira, fitxategi konprimatu batean (ZIP) bilduz eranstean ahalgo dira.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa

lizitatzailleak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza nork igortzen duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzeko ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- Edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki enpresaren edo entitatearen ahalordedunaren ziurtagiriarekin. Hala egiten bada, aplikazioaren formularioetan sartutako informazio ekonomikoa baliozkoa izanen litzateke.
- Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahalduak edo ahaldunek sinatutako dokumentu elektronikoak eransten dira.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du pertsona edo entitate lizitatzailleak agiri honetako klausulak onartzen dituela baldintzarik gabe, eta erantzukizunpeko adierazpena egiten duela adieraziz aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontratazioarako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Enpresa lizitatzailleak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko da, eskaintza aurkeztu izanaren egiaztagiri gisa. Lizitatzen duenak arazorik badu PLENA plataforman bere eskaintza aurkezteko tenorean, arrastoa –laburpen kriptografikoa– eskaintzak aurkezteko epemugaren barnean bidaliz gero kontratazio-organora (Kontratazio Atarian ezarritako harremanetarako helbide elektronikora), epea 24 orduz luzatuko da eskaintza osoa PLENAREN bidez jasotzeko eta aurkezpena osatutzat jotzeko. Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek 5 minututik gorako desfaserik ez izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariak denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora-eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1 segundo. Hori izanen da, hortaz, zerbitzu elektronikoaren ordu ofiziala.

- Lehen mailako iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilan)
- Bigarren mailako ordu-iturriak:
 - canon.inria.fr, INRIA, Paris
 - i2t15.i2t.ehu.es, UPV-EHU

PLENAn eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzaillearen proposamenak, eta gutun-azalak hiru izanen dira, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Dokumentazio orokorra.
- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboen bidez baloratu beharreko dokumentazioa.
- C gutun-azala: Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien fitxategi elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: “Dokumentazio orokorra”. (gutun-azal bakarra, nahi diren sorten kopurua edozein dela ere)

Pertsona edo entitate lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena, agiri honen l. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, zeinaren bidez frogatzen baitira Administrazioarekin kontratatzeko betekizun orokorrak, nortasuna, gaitasuna eta kaudimena.

Aipaturiko adierazpenean, nahitaez paratu beharko da helbide elektroniko bat, jakinarazpen telematikoak jasotzeko.

- Talde batean elkarturik edo enpresen aldi baterako elkarte batean parte hartzen duten pertsonen kasuan, kide bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Gainera, agiri pribatu bat gehituko da, non lizitatzailleek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahalzun bakarra izendatu, kontratuak azkendu arte sortzen dituen eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituen. Enpresek eta ahalzunak sinatu beharko dute agiri hori.
- Azpikontratazioetan, lizitatzailleak erantzukizunpeko adierazpenean jaso beharko du, batetik, azpikontratisten zerrenda eta, bestetik, baduela agiri bat frogatzen duena konpromiso formal bat dagoela enpresa azpikontratista kontratua egikaritzera behartzeko ahalmena duten pertsonekin.

B gutun-azala: “Irizpide kualitatiboen bidez baloratu beharreko dokumentazioa” (B gutun-azal bat lortu nahi den sorta bakoitzeko).

Gutun-azal honetan, lizitatzailleak aurkezten duen dokumentazio tekniko guztia sartu behar da. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta hartan azaldu beharko da zer prestazio egin beharko diren kontratua egoki egikaritzeko.

Honako hau jasoko du:

- Enpresak antzeko proiektuetan izandako ibilbidea eta esperientzia justifikatzeko dokumentazioa.
- Enpresak dituen giza baliabideei buruzko dokumentazioa.
- Proposamen teknikoa, gutxienez informazio hau jasoko duena: definizioa, testuingurua eta diagnostikoa, helburuak, garatu beharreko ekintzak, baliabideak, kronograma, ebaluazio-adierazleak eta metodologia. Era berean, lehen puntuan definitutako helburuei erantzun beharko die, eta sorta bakoitzerako ezarritako baldintza teknikoetara egokituko da.

C gutun-azala: "Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa" (C gutun-azal bat lortu nahi den sorta bakoitzeko).

Gutun-azal honetan honako hauek sartuko dira:

- Proposamen ekonomikoa, III. ERANSKINAREN arabera.
- Proiektuaren zuzendariaren titulazioa.
- Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioari buruzko dokumentazioa.

Proposamen ekonomikoa (III. eranskina) behar bezala sinatuko du pertsona edo entitate lizitatzailerak edo hura ordezkatzeko duenak, eta ezin izanen du gainditu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko da bertan barne hartzen direla zerga eta tasa aplikagarri guztiak, eta sortzen den zeinahi gastu.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazioduna gai izan dadin kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari aurre egiteko, gutxienez ere; finkaturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere apalagoak izan hitzarmeneko orduko prezioak, gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Eskaintako prezioaren kalkuluak barne hartuko ditu jarduera egiteak ekarriko dituen ordainsari eta egiturazko kostu guztiak; besteak beste:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, Nafarroako bulego eta langelen sektorearen hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata baldintzak bete beharko dira.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenki loturik daudenak.

11. KONTRATAZIO MAHAIA

Pertsona edo erakunde lizitatzailerak onartzeko, eskaintzak baloratzeko eta adjudikazio-proposamena egiteko, Kontratuen 2/2018 Foru Legearen 50. artikulua araberakontratazio-mahai bat eratuko da, honako hauek osatua:

- Mahaiburua: Paula Kasares Corrales, Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria.

Ordezkoa: Ander Irizar Apaolaza, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzuko zuzendaria.

- Idazkaria: Aitziber Gutiérrez Díaz, APTa (arlo juridikoa).

Ordezkoa: Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan administrazio publikoko teknikariaren lanpostua duen beste pertsona bat (arlo juridikoa).

- Mahaikidea: Marta Chamorro Armendariz, Euskararen Azterlan eta Plangintza Estrategikoen Ataleko burua.

Ordezkoa: Euskara Sustatzeko Ataleko burua.

- Mahaikidea: Maite Mangado Fernández, erdi mailako euskara teknikaria.

Ordezkoa: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko teknikari bat.

- Kontu-hartzaile: Miren Rico Nogales, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko kontu-hartzaile delegatua, edo haren legezko ordezkoa.

Kontratazio mahaiak Kontratuei buruzko Foru Legeak 50. eta 51. artikuluetan ematen dizkion eginkizunen arabera jokatu du eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatzen duenaren arabera gobernatu da deialdiaz, saioez, quorumaz, mahaikideen eginkizunez, aktez, abstentzioaz, errekusazioaz eta abarrez den bezainbatean. Edozein proposamen egin baino lehenago, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eska ditzake, baldin eta kontratuaren xedearekin zerikusia badute.

12. DOKUMENTAZIOA ETA ESKAINTZEN BALORAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoren, unitate kudeatzaileak A gutun-azalean aurkeztutako dokumentazio administratiboa kalifikatu du.

Aurkeztutako dokumentazioa ez bada osoa edota zalantzaren bat sortzen badu, PLENako jakinarazpenen modulua baliatuz eskatuko zaio eskaintza aurkeztu duenari dokumentazio hori osatzeko edo akatsak zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko

epean, errekerimendua jakinarazten den egunetik hasita. Tramite honetan aurkeztutako dokumentazioak inolaz ere ez ditu eskaintzaren baldintzak aldatuko.

Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, unitate kudeatzaileak onartutako enpresen B gutun-azalak ("Irizpide kualitatiboen bidez baloratu beharreko dokumentazioa") ireki eta baloratuko ditu, aipatutako adjudikazio-irizpideen arabera.

Eskaintza kualitatiboak baloratu ondoren, formulen bidez kuantifika daitezkeen eskaintzak dauzkaten gutun azalak irekiko dira, eta unitate kudeatzaileak irizpide kuantifikagarrien balorazio teknikoaren emaitza argitaratuko da PLENAn.

13. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Sorta bakoitzaren kontratuaren adjudikazioa egingen da kostu-eraginkortasun irizpideei (prezioa) zein irizpide kualitatiboei jarraikiz, adjudikazioa proposamen onuragarrienari emateko asmoz, halakotzat harturik puntu gehien duen eskaintza adjudikazio irizpide hauek aplikatuta:

13.1 Irizpide kualitatiboak: gehienez 50 puntu.

a) Lantaldea eta esperientzia antzeko proiektuetan. Gehienez 20 puntu.

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Enpresaren ibilbidea eta esperientzia antzeko proiektuetan (gehienez 10 puntu)

Esperientzia txikia (0-3 puntu)

Enpresak egiaztatu du antzeko proiektu batean edo bitan aritu dela, baina iraupen laburrago batean edo kontratuaren xedearekiko irismen partzialarekin.

Esperientzia ertaina (4-7 puntu)

Enpresak 3 edo 4 proiektu egiaztatu ditu, lizitatutako kontratuaren iraupen eta konplexutasun berekoak.

Zerbitzu motaren ezagutza egokia ikusten da, erreferentzia argi eta dokumentatuekin

Esperientzia handia (8-10 puntu)

Enpresak antzeko 5 proiektu edo gehiago egiaztatu ditu, kontratuaren arloan ibilbide sendoak dutenak.

Aurkeztutako proiektuak garrantzitsuak, berriak eta balio tekniko edo estrategiko handikoak dira.

- Enpresak dituen giza baliabideak (gehienez 10 puntu).

Giza baliabide urriak edo desegokiak (0-3 puntu):

Proposatutako taldea hiru pertsona baino gutxiagokoa da, edo ez du kontratuaren helbururako lanbide-profil egokirik.

Zerbitzuaren funtsezko zereginetikiko espezializazio falta, esperientzia mugatua edo desegokia ikusten da.

Giza baliabide egokiak (4-7 puntu):

Taldeak, gutxienez, hiru kide ditu, eta kideok eman beharreko zerbitzurako profil tekniko eta profesional egokia dute.

Kontratututako zereginak behar bezala egiteko behar besteko prestakuntza eta esperientzia egiaztatzen da.

Kualifikazio handiko giza baliabideak (8-10 puntu):

Proposatutako taldea hiru pertsonak baino gehiagok osatzen dute, eta kideok profil oso espezializatua dute eta esperientzia antzeko zerbitzuetan.

Funtsezko profil ezberdinak hartu dituzte aintzat (kalitatearen, koordinazioaren, profil tekniko aurreratuen arduradunak...) eta horren arabera eskaintza egin dute, profil horietako bakoitzari dagokion maila altua egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezturik (Curriculum xeheak eta bestelako ziurtagiriak).

b) **Proposamen teknikoa**, gutxienez informazio hau jasoko duena: definizioa, testuingurua eta diagnostikoa, helburuak, garatu beharreko ekintzak, baliabideak, kronograma, ebaluazio-adierazleak eta metodologia. **30 puntu, gehienez**

Balorazioa honako puntuazio-eskalaren arabera egingen da:

Ez da aurkeztu edo ez da egokia: 0

Eskasa: 1etik 7ra.

Arrunta: 8tik 15era.

Ona: 16tik 22ra.

Oso ona: 23tik 30era.

- Oso ona: proposamenak oso gaitasun ona erakusten du erakunde kontratatzailearen beharrei eta preskripzio teknikoetan eskatutakoari erantzuteko.
- Ona: proposamenak gaitasun egokia erakusten du erakunde kontratatzailearen beharrei eta preskripzio teknikoetan eskatutakoari erantzuteko.
- Arrunta: proposamenak gaitasun nahikoa erakusten du erakunde kontratatzailearen beharrei erantzuteko, baina ozta-ozta preskripzio teknikoetan eskatutakoari erantzuteko.
- Eskasa: proposamenak gaitasun urria erakusten du erakunde kontratatzailearen beharrei erantzuteko, eta, beraz, ez dago argi preskripzio teknikoetan eskatutakoari egoki erantzuteko gaitasuna duen.
- Ez da aurkeztu edo ez da egokia: proposamenak ez du frogatzen erakunde kontratatzailearen beharrei erantzuteko inolako gaitasunik duenik, edo ez ditu oinarritzko baldintzak betetzen.

Atal honetan (13.1.b) ezarritako puntuetatik 15era iristen ez diren proposamenak baztertuko dira automatikoki. Hori guztia teknikoki desegokitzat jotako eskaintzak edo kontratu hau zuzen egikarituko dela bermatzen ez dutenak baztertzeari utzi gabe.

13.2. Formulen bidez kuantifika daitezkeen irizpideak: gehienez 50 puntu.

a) Proiektuaren zuzendariaren titulazioa (gehienez 15 puntu):

- Hizkuntza-plangintzarekin lotutako titulazioa: gehienez 12 puntu.
 - “HIZNET” hizkuntza-plangintza (aditu-titulua): 7 puntu
 - Euskararen kudeaketa eta hizkuntza-praktikak erakunde publikoetan (aditu-titulua): 3 puntu
 - Hizkuntza-kudeaketa eta hizkuntza-praktikak eremu sozioekonomikoan (aditu-titulua): 5 puntu
 - Euskararen hizkuntza-praktikak eremu ez-formalean (aditu-titulua): 3 puntu
 - Hizkuntzen kudeaketa aro globalean: berrikuntzaren gakoak euskara biziberritzean (masterra): 12 puntu
- Euskararen C2 ziurtagiria. 3 puntu.

b) Irizpide sozialak. Gehienez 10 puntu.

- Desgaitasuna dutenak kontratatzea:

% 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeagatik:

- Pertsona bat: 5 puntu.
- Pertsona bat baino gehiago: 10 puntu.

c) Eskaintza ekonomikoa. Gehienez 25 puntu.

Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute:

$$\text{Puntuak} = \frac{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Entitate lizitatzaileraren proposamen ekonomikoa})}{(\text{Kontratuaren gehieneko aurrekontua} - \text{Gutxieneko aurrekontua}) \text{ BEZik gabe}} \times 25$$

Eskaintza ekonomikoetako batek bat egiten badu lizitazioko gehieneko aurrekontuarekin, 0 puntu eskuratuko du.

13.3. Eskaintza baxuegiak: Eskaintza baxuegitzat joko da lizitazioko gehieneko prezioarekiko beherapena % 15 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

13.4 Berdinketak hausteko irizpideak: Bi enpresa lizitatzaileraren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatuz gero, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 99. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Beraz, berdinketa gertatzen bada, genero-berdintasunaren arloko jardunbide egokiak egin dituela frogatzen duen enpresaren alde ebatziko da. Berdinketak bere horretan jarraituz gero, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten langile finkoen ehuneko handiena duen enpresaren alde egingen da, betiere enpresan desgaitasuna duten langileak plantillaren % 3 badira gutxienez kaudimena frogatzen den unean, eta, halakorik ezean, edo berdinketak irauten badu, behin-behineko langileen ehuneko txikiena duen enpresaren alde, betiere ehuneko hori % 10etik gorakoa ez bada. Hala eta guztiz ere berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

Beraz, berdinketa gertatuz gero, unitate kudeatzaileak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die agiri horiek aurkezteko.

14. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Behin adjudikazioaren proposamena modu elektronikoan jakinarazita, proposatutako lizitatzailleak edo lizitatzailleek 7 egun naturaleko epea izanen du edo dute dokumentazio hau aurkezteko PLENaren bidez:

a) Nortasuna frogatzen duen agiria:

- Lizitatzaillea pertsona fisikoa bada, nortasun agiri nazionala, edo araudiaren arabera hura ordezkatzeko duen agiria.
- Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eratzeko eta, halakorik bada, aldatzeko eskritura aurkeztu beharko dira, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.
- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztuko dituzte: ahalorde askietsia eta ahalduaren nortasun agiri nazionala. Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalordea dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon behar da, betebeharrak hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritzari buruzko legeriaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailleen Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitatzailleak ez du bere nortasunari edo ordezkariari buruzko agiririk aurkeztu behar, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoan Internet bidez eskuratua, eta inskripzioa indarrean egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago eginga, lizitatzailleak Nafarroako Zerga Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duena.

c) Lizitatzailleak zerga Nafarroatik kanpora ordaintzen badu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Administrazioak Estatu Agentziak edo foru ogasunek eginga.

d) Adjudikaziodunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela frogatzen duen agiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago eginga.

e) Kasua bada, irizpide sozialetan sartutako pertsonak kontratatu direla frogatzen duten kontratuak.

Dokumentazio hori adierazitako epean aurkezten ez bada, eta horren ondorioz kontratua ezin bada formalizatu, kontratua suntsiarazi ahalko da, interesdunari entzun ondoren.

Kasu horretan, interesdunak kontratuaren balio zenbatetsiaren % 5eko penalizazioa ordainduko du, bai eta galeren kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratazio mahaiak behar den adjudikazio proposamena igorriko dio Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileari, kontratua adjudikatzeko ebazpena eman dezan. Proposamen horretan jasoko dira ezarritako irizpideak aplikatuz proposamen bakoitzari buruz egindako balioespenak, eta horren barrenean, berriz, proposamen onargarria egin duten lizitatzailen lehentasunaren hurrenkera, atera duten puntu kopurua zehaztuz eta adieraziz, hala behar badu, eskainitako zer hobekuntza eman diren ontzat.

Adjudikazioa behar bezala arrazoituko da, bai eta lizitatzaille guztiei jakinaraziko ere; gainera, horren eraginkortasuna etenda geldituko da 10 egun naturalean, adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik hasita, eskaintza bakarra aurkeztu denean izan ezik.

Kontratua agiri administratiboan formalizatuko da, adjudikazioaren etenaldia bukatu ondoko 15 egun naturaleko epean. Administrazioak eta kontratistak formalizatuko dute kontratua.

16. KONTRATUA EGIKARITZEA

- Kontratua Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren gainbegiratze, ikuskatze eta kontrol pean gauzatuko da.

Lanak beteko dira sorta bakoitzari dagozkion preskripzio teknikoen arabera (agiri honen II. ATALA), langile arduradunek idatziz emandako jarraibideekin bat. Kontratistak une oro men eginen die indarreko legeriak administrazio-kontratugileari esparru-akordioa interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

- Adjudikazioduna izanen da zerbitzua emateko hautaturiko langileen arduradun bakarra eta, beraz, inola ere ez dute kontratu edo lan harremanik izanen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak beretzat gordeko du ahalmena enpresari eskatzeko zerbitzua ematen duten langileak ordezkari ditza, non eta, bere iritziz, ez diren ari zerbitzua behar bezainbateko kalitate mailarekin ematen.

- Kontratatzan diren lanak egiteko behar diren langile guztiek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparruko C1 mailako euskara titulua (edo baliokidea) izan behar dute.

Enpresa beharturik dago kontratu hau egoki betetzeko beharrezkoak diren ekipoa, baliabide lagungarriak, laneko bulegoa, aretoak eta langileak ekartzera.

- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak ez du inolako harreman funtzional, organiko edo laboralik izanen langileekin, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez bukatu ondoren.

- Enpresa kontratistak Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarilaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuak ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Halaber, kontratua gauzatzearen ondorioz ekoitzi edo zabaldutako zeinahi dokumentazio, iragarki, dibulgazio material edo informazio materialetan adierazi behar da Nafarroako Gobernuaren zerbitzu bat dela, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren dela erakunde kontratatzailea. Horrez gain, Nafarroako Gobernuaren sinboloa azalduko da.

17. LANEN ORDAINKETA

Agiri honetako lanak behar bezala egin ondoren ordainduko ditu Nafarroako Gobernuak, dagozkion fakturak aurkeztu ondoren, betiere Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak erakunde autonomoak faktura horiekin ados dagoela adierazten badu.

Bi ordainketa egingen dira:

- 2025ean egindako lanei dagokien ordainketa: 2025eko abenduan, memoria eta dagozkion fakturak entregatu ondoren.

- 2026an egindako lanei dagokien ordainketa: kontratatutako lanak gauzatu izanaren azken memoria eta dagokion faktura entregatu ondoren. Sorta bakoitzaren memoriaren edukia agiri honen II. ZATIAN (PRESKRIPZIO TEKNIKOAK) ezarritakoa izanen da.

18. KONTRATUA BETETZEA

Pertsona edo entitate adjudikaziodunak ekintzak bururatu beharko ditu kontratuko epean eta kontratazioa arautzen duten agiriei eta bere eskaintzaren edukiari jarraikiz.

Kontratua bete dela egiaztatuko da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak oniritzia ematen duenean.

18.1. EZ-BETETZEAK

Kontralistaren ez-betetzetat joko dira honako jokabide hauek:

A. Ez-betetze arinak

A.1. Ez betetzea langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa, agiri honetan eskatu gisan.

A.2. Lanak entregatzeko epea ez betetzea.

B. Ez-betetze astunak

B.1. Kontratua akatsekin exekutatzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2. Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3. Kontratuaren unitate kudeatzaileak emandako aginduak ez betetzea, kontratu-exekuzioari dagozkion gaietan.

C. Ez-betetze oso larriak

C.1. Kontratuaren exekuzio-baldintza bereziak ez betetzea.

C.2. Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

18.2 Zehapenak

Kontralistaren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren % 1ekoa gehienez.

b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 1etik % 5erainokoa, kontralistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren % 5etik % 10erainokoa, kontralistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea kontuan hartuta.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren % 20 izanen da gehienez, foru lege horren 66. artikuluan aurreikusitako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren % 20 baino gehiagokoa izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren % 10 baino handiagokoak direnean, kontratatzeke debekua deklaratzeko prozedura abiaraziko da.

18.3. ARRISKUA ETA MENTURA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratistaren kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako aseguruia egiteko aukera.

18.4. KONTRATUA EGIKARITZEAN ERAGINDAKO KALTE-GALERAK

Kontratua egikaritzearen ondorioz ondasun eta pertsonen (jabetzarenak nahiz hirugarrenenak) eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak kontratistari egozten ahalko zaizkio.

18.5. KONTRATISTAK LAN ARAUDIA BETETZEA

Kontratu horrek errespetatu behar ditu lanari, gizarte segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak, batik bat enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

19. JABETZA INTELEKTUALA

1. Kontratu honetako ekoiztako material guztien jabetza Nafarroako Gobernuarena izanen da, eta hark erreproduzitzen, aldatzen, argitaratzen eta zabaltzen ahalko ditu, osorik edo zati batean, eta adjudikaziodunak ezin izanen dio aurka egin; horretarako, eskuragarritasun hori bermatzen duen dokumentazio nahikoa erantsiko dute entrega partzialetan edo osoetan.

2. Enpresa adjudikaziodunak, lizitazioan parte hartuz eta oinarri hauek onartuz, baldintza hauen mende egonen da, kontratuko emaitzen gaineko jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak ezarriko baitituzte:

- a) Enpresa adjudikaziodunak Nafarroako Gobernuari lagatzen dio jabetza intelektualaren, industrialaren eta antzeko eduki ekonomikoa duten posizio

juridikoen eskubide guztien titulartasuna, kontratuko zerbitzuak eman ondoren sortzen diren materialei dagokienez.

b) Eskubideak eskusiboki eta epemugarik gabe lagatzen dira. Lagapen horrek aipatutako eskubideak ustiatzeko edozein modalitate hartzen du barne, edozein bitarteko edo euskarriren bidez, Internet edo nazioko edo nazioarteko beste edozein sare barne.

c) Enpresa adjudikaziodunak Euskarabideari bermatuko dio emaitzak enpresako langileek edo kanpoko langileek garatu dituztela, zeinekin eskubideak lagatzeko akordioak ezarri baitira, eta lanen egileak direla eta lanak jatorrizkoak direla.

d) Enpresa adjudikaziodunak kontratuko lanak egiteko behar diren baimen guztiak eskatuko ditu (irudi-eskubideak, baimenak eta/edo lizentziak), eta kontratu honen arabera garatutako material guztiek kontratazio-organoari titulartasuna eskualdatzeko aplikatu beharreko araudi guztia betetzen dutela bermatuko du, hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak, besteak beste, urratu gabe. Enpresa izanen da erantzulea jabetza industrial eta intelektualari buruzko edozein erreklamazioren aurrean, eta, ildo horretan, edozein erreklamazio edo lege-ekintzaren ondorioz sor daitezkeen kalte-galera guztien kalte-ordaina emanen dio kontratazio-organoari, eta ezin izanen dio organo horri kalteen erantzuna esleitu.

e) Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Euskarabidearekin emakidadun gisa legitimatzeko beharrezkotzat edo egokitzat jotzen duen edozein agiri publiko edo pribatu formalizatzeko eta sinatzeko, hark izendatzen duen une eta pertsona edo erakundearen aurrean.

3. Enpresa adjudikaziodunak berariaz aitortzen du Nafarroako Gobernuaren titulartasunekoa izanen dela kontratua gauzatzen den bitartean egiten diren lanen emaitza, dokumentazio edo entregagai oro, prozedura honen ondoriozko administrazio-kontratuaren arabera.

20. DATUAK BABESTEA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa adjudikaziodunak bi arau hauek bete behar ditu: 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari

dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Enpresa adjudikaziodunak behar den isiltasuna gorde beharko du kontratuaren edukiari eta garapenari buruz, eta konfidentzialtasun- eta sekretu-betebeharra errespetatzeko konpromisoa hartuko du emandako zerbitzuak direla-eta ezagutzen duen informazioari buruz.

Enpresa adjudikaziodunak eta arduradunek sekretu profesionala gordeko dute kontratu hau indarrean dagoen bitartean eskuratzen edo ezagutzen dituzten informazio, dokumentu eta gai guztiei buruz, eta, nolanahi ere, enpresa adjudikaziodunak Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legean ezarritakoa bete beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du Euskarabideak emandako informazioa eta datuak edo dokumentuak (edo haien kopiak) hirugarrenei ez emateko edo lagatzeko, agiri honetan beharrezkotzat jotzen ez den beste edozein erabileratarako, bai eta indarrean dagoen legeria une oro betetzeko ere.

Enpresa adjudikaziodunak, tratamendu-eragilea den aldetik, berariaz aitortzen du tratamenduaren arduradunaren jabetzakoak direla kontratu honetako jardueretatik abiatuta sortzen diren erregistroetako datu pertsonalak. Beraz, jarraibideen arabera soilik tratatuko ditu datuak, eta ezin izanen ditu aplikatu edo erabili kontratu honetan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako, eta ezin izanen ditu beste pertsona batzuei jakinarazi, laga edo gorde.

Era berean, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du kontratu honetako zerbitzua ematearen ondorioz bere zerbitzarietan ostatatzen diren datu guztiak babesteko eta zaintzeko, datu horien segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketa-neurri guztiak aplikatuz.

Datuak beste helburu baterako erabiltzen baditu, jakinarazi, laga edo erabiltzen baditu hemen aurreikusitako xedapenak bete gabe, tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, eta egin dituen arau-hauste guztien erantzule izanen da.

21. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldaketaz eta suntsiarazteaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztzen ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordeztu, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkeztu ahalko dute kontratazio agirien aurka, tramite-egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioz lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien igurikimenei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkeztu ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

II. ZATIA – PRESKRIPZIO TEKNIKOAK

22. 1. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARAZ BARRA-BARRA MARKA SUSTATZEKO, HEDATZEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO JARDUERAK EGITEA NAFARROAKO HAINBAT ESKUALDETAKO

MERKATARITZAKO, OSTALARITZAKO ETA ZERBITZU PROFESIONALETAKO ESTABLEZIMENDUETAN.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da Euskaraz barra-barra marka hedatzea Nafarroako merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu profesionaletako establezimenduetan, haietan euskararen ahozko erabilera areagotzeko.

Proiektua merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu profesionaletako establezimenduetara egindako bisiten bidez garatuko da.

2. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA.

Euskaraz barra-barra markaren helburu nagusia da euskararen erabilera areagotzea merkataritzan eta ostalaritzan. Markak baldintzak sortu nahi ditu euskararen erabilera errazteko eta sustatzeko. Horretarako, honako hau aurreikusten da:

- Adieraztea zein establezimenduk eman dezaketen arreta euskaraz, bezero euskaldunen hizkuntza-estresa murrizteko.
- Markari atxikitako establezimenduek adieraztea borondatea dutela bezeroekin euskararen erabilera areagotzeko, bezeroek euskaraz nahi badute arreta.

Horretarako, bisitak egingen dira Nafarroa osoko merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzu profesionaletako establezimenduetara.

Bi motatako bisitak egingen dira:

- a) Marka ezartzeko bisitak (sustapena eta hedapena).
- b) Jarraipena egiteko bisitak dagoeneko atxikirik dauden establezimenduetara.

Marka ezartzeko edo jarraipena egiteko bisitak egin aurretik, enpresa adjudikaziodunak bisiten plan bat aurkeztu beharko du, lurralde- eta sektore-irizpideetan oinarrituta, bisitetarako diseinatutako metodologia/eskaleta eta kronograma barne. Euskarabideak baliozkotu edo zuzenduko du plan hori, agiri honetan ezarritako irizpideen arabera. Marka ezartzeko bisiten plana kontratua sinatu eta gehienez ere 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko da. Jarraipena egiteko bisiten plana aurkezteko epea Euskarabidearekin adostuko da, 2025ean egindako lanak aurkezteko bileran.

a). - Marka ezartzeko bisitak:

Bisita horietan, enpresa adjudikaziodunak zeregin hauek beteko ditu:

- Hizkuntza-paisaia aztertzea: ikustea zer hizkuntza erabiltzen diren establezimenduaren kanpoko eta barruko errotuluetan: euskara, gaztelania, biak edo beste batzuk).
- Langileen euskara-maila aztertzea: jendaurrean lan egiten duten langileen euskara-gaitasunari buruzko datuak biltzea:

Jendeari begira lan egiten duten langileen (bezeroekin interakzioa dutenen) hizkuntza-gaitasunak Euskaraz barra-barra programan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak¹ betetzen baditu, programa horren berri emanen da eta ezarri eginen da. Honela ezarriko da:

- Euskaraz barra-barra programa aurkeztea eta bertan parte hartzera animatzea. Horretarako, adjudikaziodunak aurkezpen-gutun bat izanen du, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak sinatua.
- Azaltzea zein hizkuntza-konpromiso hartzen diren markarekin bat egitean.
- Programa identifikatzeko eranskailua banatzea ekimenean parte hartu nahi duten establezimenduetan:
 - Bisita berean markarekin bat egitea erabakitzen dutenei unean bertan emanen zaie.
 - Bisitan atxikitzen ez diren establezimenduei astebeteko epea eskainiko zaie posta elektronikoz erantzuteko. Atxikitzeko borondatea adierazten badute, hurrengo 15 egunetan bidali beharko zaie materiala posta arruntez.
 - Posta elektronikoz erantzuten ez dutenei telefonoz deituko zaie haien asmoa argitzeko eta, atxikitzeko borondatea adierazten badute, materiala posta arruntez bidali beharko zaie hurrengo 15 egunetan.

Euskarabideak marka identifikatzeko eranskailua emanen dio enpresa adjudikaziodunari, eta erakuslehoan edo ageriko beste toki batean jarri beharko da.

Enpresak Euskarabidearen egoitzan jaso beharko du.

Euskaraz barra-barraren inpaktua ahalik eta handiena izan dadin, beste marka batzuekin batera erabiliz gero, enpresa adjudikaziodunak kokapen egokia bermatu beharko dio, bezeroek erraz ikusteko moduko leku batean. Inola ere ezinen da logotipoa deformatu, zulatu, kolorez aldatu edo gainjarri.

- Bisiten kopurua:
Gutxienez 367 establezimendu bisitatu beharko dira, banaketa honen arabera:

Eskualdea	2025	2026
Iruñerria	200	75

¹ Establezimendu batek Euskaraz barra-barra kanpainarekin bat egiteko bete behar dituen baldintzak:
Establezimendua irekirik dagoen bitartean, zerbitzua euskaraz emateko gai den langile batek egon beharko du, gutxienez.

Gainerako eskualdeak*	67	25
-----------------------	----	----

*Nafarroako eskualde guztietako establezimenduak bisitatu beharko dira; eskualde horiek lege honetan zehazten dira: [Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformari buruzko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea](#).

- Bisita bakoitzaren aurreko lanak:
 - Establezimenduarekin harremanetan jartzea hitzordua adosteko.
 - Bisita prestatzea: testuinguru soziolinguistikoa, markari buruzko informazioa, materiala prestatzea...
- Bisita bakoitzaren ondorengo lanak:
 - Establezimendu bakoitzaren datuak prozesatzea fitxa bat betez. Fitxa horren gutxieneko informazioa Euskarabidearekin adostutakoa izanen da.

b) - Jarraipena egiteko bisitak dagoeneko atxikirik dauden establezimenduetara:

Euskaraz barra-barra marka 2023an aurkeztu zen, eta orain arte 200 establezimendu atxiki dira Nafarroa osoan.

2026an, adjudikaziodunak 2025eko abenduaren 31n markari atxikirik dauden establezimenduak bisitatu beharko ditu. Euskarabideak 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen emanen dio enpresa adjudikaziodunari atxikitako establezimenduen zerrenda.

Bisita horietan, enpresa adjudikaziodunak zeregin hauek beteko ditu:

- Aurrez aurreko bisita. Bertan egiaztatuko da ea establezimenduak jarraitzen duen atxikitzeko hizkuntza-baldintzak betetzen eta eranskailuaren kokapena adostutakoa den.
- Hondatutako materiala aldatzea, behar izanez gero.
- Bisiten kopurua:

[Eskualde guztietako](#) 300 establezimendu bisitatu beharko dira gutxienez, udalerrri bakoitzean atxikitako establezimendu kopuruaren araberrako proportzioan. Bisita guztiak 2026an egingen dira.
- Bisita bakoitzaren aurreko lanak:
 - Establezimenduarekin harremanetan jartzea hitzordua adosteko.
 - Bisita prestatzea: establezimenduak markarekin bat egin zuen unean jasotako informazioa berrikustea.
- Bisita bakoitzaren ondorengo lanak:
 - Fitxa bat betetzea bisitatutako establezimendu bakoitzeko . Dokumentu horrek jasoko duen informazioa Euskarabidearekin adostutakoa izanen da.

Bisitak euskaraz eginen dira, baldin eta bermaturik badago establezimenduetako arduradunek eta langileek ongi ulertzen dutela.

Bisita egitera joatean establezimendua itxirik (behin betiko edo aldi baterako) edo ixtear badago, arduradunak bisita egiteari uko egiten badio edo establezimendua aurkitu ez bada, datu hori excelean sartuko da.

Bisita egitera joatean elkarriketa ezin izan bada egin, datu hori excelean sartuko da. Elkarriketa ezin dela egin ondorioztatzeko, elkarriketa egiteaz arduratzen den pertsonak gutxienez 3 aldiz agertu beharko du establezimenduan, betiere egun eta ordu desberdinetan.

3. ADJUDIKAZIODUNAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK.

Kontratu honen betebeharrak preskripzio teknikoetan eta baldintza partikularren agirian ezarritakoa betetzetik eratorritakoak dira.

3.1. Koordinazio- eta jarraipen-lanak:

Proiektua behar bezala gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak Euskarabideak beharrezkotzat jotzen dituen koordinazio- eta jarraipen-bilera guztiak eginen ditu.

Koordinazio orokorra eta adjudikazioaren ondoriozko lanak euskaraz izanen dira; beraz, enpresa adjudikaziodunak behar diren baliabideak jarri beharko ditu baldintza hori betetzeko.

3.2. Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa lantzea:

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honetako lanak amaitu ondoren, dokumentazio hau entregatuko dio Euskarabideari:

- 2025eko abenduaren 10a baino lehen:
 - ✓ Excel bat, bisitatutako establezimendu guztien informazioa biltzen duena.
 - ✓ Egindako lanei buruzko memoria.
- 2026ko uztailaren 30a baino lehen:
 - ✓ Excel dokumentu bat, establezimendu bakoitzari buruzko informazioa jasotzen duena, Euskarabidearekin aldez aurretik adostua. Excel liburu horrek bi orri izanen ditu: batean marka ezarri den establezimenduak agertuko dira, eta bestean jarraipen-lanak egin diren establezimenduak.
 - ✓ Azken memoria, egindako lanei eta lortutako emaitzei buruzkoa.
Informazio hori eremu geografikoen eta jarduera-sektoreen arabera emanen da. Bestalde, memoria horretan, enpresa adjudikaziodunak proiektua hobetzeko egokitzen jotzen dituen neurriak aurkeztuko dizkio Euskarabideari.
Enpresa adjudikaziodunak izendatzen duen koordinatzailea arduratuko da txosten hori Euskarabidean aurkezteaz.

Enpresa adjudikaziodunak kontratu honi buruz sortzen duen dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da, Euskarabidearekin koordinatzeko soilik dena kenduta.

3.3. Lantaldea:

Zerbitzua behar bezala emateko, enpresa adjudikaziodunak lantalde egokia eratu beharko du. Taldeak, gutxienez, profil hauek izan beharko ditu:

- **Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den pertsona bat.**

Proiektuaren koordinazio orokorraz, kontratazioez, aseguruiez, bisiten kronogramaren diseinuaz eta bisiten ondoren balorazio-txostena aurkezteaz arduratuko da.

Bete beharreko baldintzak:

- Unibertsitateko titulua.
- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia antzeko jarduerak koordinatzen/antolatzen.

- **Bisitak eginen dituzten pertsonak:**

Enpresa adjudikaziodunak behar adina pertsona kontratatuko ditu kontratuaren beharrei behar bezala erantzuteko.

Bete beharreko baldintzak:

- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 6 hilabeteko esperientzia antzeko lanetan.

Bisitak hasi aurretik, enpresak honako hauek aurkeztu beharko ditu: jarduera gauzatzearen behin betiko ardura izanen duten lantaldeko kide guztien izen-abizenak, adina, nortasun-agiria, titulu akademikoak eta lan-esperientzia frogatzen dituen dokumentazioa, bai eta euskararen C1 ezagutza-maila (edo baliokidea) frogatzen duen dokumentua ere.

Enpresa adjudikaziodunak prestakuntza espezifiko emanen die establezimenduak bisitatuko dituzten pertsona guztiei bisitak prestatzeko eta egokitzeko, eduki honekin: nola antolatu eta egituratuko diren bisitak, zer informazio mota lortu nahi den, nola ezagutarazi Euskaraz barra-barra markari buruzko informazioa, nola bildu informazioa eta nola gorde jasotako informazioa.

3.4. Antolaketa eta funtzionamendua:

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du jarduerak egiten diren bitartean honako ekintza hauek egiteko:

- a) Programa aurkeztutako proposamenaren arabera garatzea.
- b) Koordinatzaileen bisiten programa zehaztea, eta bisitak eginen dituzten pertsonekin prestatzea.
- c) Bisitak aurreikusitako moduan egitea.
- d) Euskarabideak egokitzea jotzen dituen kontrol- eta jarraipen-bileretan parte hartzea.

- e) Proiektua gauzatzean eragin negatiboa izan dezakeen edozein gorabehera idatziz jakinaraztea Euskarabideari. Horretarako, Euskarabideak dagokion erabakia hartu beharko du.
- f) Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa prestatzea eta aurkeztea, dokumentu honetan deskribatutako betekizunen arabera.

Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den pertsonak egingen du koordinazioa Euskarabidearekin. Pertsona hori solaskide bakarra izanen da Euskarabidearekin, eta enpresa adjudikazioduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean emateko ahalmena izanen du.

Enpresa adjudikaziodunak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa ekarriko du kontratura, eta zerbitzuaren antolaketaren, garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen arduraduna izanen da, eta bere gain hartuko du enpresa-arriskua.

Zerbitzuari atxikitako langileen zuzendaritza- eta funtzionamendu-ahalmena enpresa adjudikaziodunaren eskumen eskusiboa da.

s23. 2. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARAREN ETA NAFARROAKO EREMU SOZIOEKONOMIKOAREN INGURUKO JARDUNALDI BAT ANTOLATZEA ETA EGITEA.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da Nafarroako eremu sozioekonomikoan euskarari buruzko jardunaldi bat antolatzea eta egitea. 2026ko lehen seihilekoan egingen da, Nafarroako Baluarte Biltzar Jauregia eta Auditoriumean.

Enpresak zehaztuko du data, Euskarabidearekin adostuta.

2. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA.

Jardunaldi hauen helburu nagusia da Nafarroako eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea, komunitatea sustatuz eta tresna, baliabide eta proiektu berritzaileak eraikiz eta partekatuz.

2022an egin zen lehen edizioa, *Euskara langai* izenburupean. Edizio berri honek jarraipena eman nahi dio lan horri.

Horretarako, enpresa adjudikaziodunak lan hauek egingen ditu:

- Gutxienez goiz bateko jardunaldi bat antolatu eta garatzeko proiektu bat aurkeztea: ekitaldia diseinatzeko lanak, jardunaldiaren definizioa, edukiak, hizlariak eta jardunaldia gauzatzeko alderdiak. Proiektua, gehienez ere, kontratua sinatu eta 15 egun naturaleko epean aurkeztuko da.
Euskarabideak baliozkotu edo zuzenduko du proiektua.
- Jardunaldia prestatzeko lanak eta jardunaldiaren egunean egin beharreko lanak koordinatzea eta kudeatzea: Baluarte Biltzar Jauregiko areto bat kontratatzea, hizlariekin harremanetan jartzea eta haiek kontratatzea, izen-emateak, bertaratze-ziurtagiriak eta gogobetetasun-inkestak kudeatzea, interpretazio-zerbitzua eta goizerdiko cateringa ematea, jardunaldiko argazkiak, bideo-grabazioa eta, behar izanez gero, edizioa gauzatzeko, eta jardunaldia behar bezala garatzeko behar den guztia kudeatzea.
- Akreditazioen, eskuzko programen, webgunearen eta proiektuaren komunikaziorako beharrezkoak diren beste material batzuen edukiak idaztea, Euskarabidearekin eta ekitaldiaren komunikazioaz arduratzen den enpresarekin koordinaturik.

3. ADJUDIKAZIODUNAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK.

Kontratu honen betebeharrak preskripzio teknikoen atal honetan ezarritakoa betetzetik eta baldintza zehatzen agiritik eratorritakoak dira.

3.1. Koordinazio- eta jarraipen-lanak:

Proiektua behar bezala gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak Euskarabideak beharrezkotzat jotzen dituen koordinazio- eta jarraipen-bilera guztiak egingen ditu.

Koordinazio orokorra eta adjudikazioaren ondoriozko lanak euskaraz izanen dira; beraz, enpresa adjudikaziodunak behar diren baliabideak jarri beharko ditu baldintza hori betetzeko.

3.2. Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa lantzea.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honetako lanak amaitu ondoren, dokumentazio hau entregatu beharko dio Euskarabideari:

- Memoria, euskaraz eta gaztelaniaz, 2025ean egindako lanei buruzkoa, abenduaren 10a baino lehen aurkeztu beharrekoa.
- Egindako lanei buruzko azken memoria, 2026ko uztailaren 30a baino lehen aurkeztu beharrekoa.

Enpresa adjudikaziodunak izendatzen duen koordinatzailea arduratuko da txosten hori Euskarabidean aurkezteaz.

Enpresa adjudikaziodunak kontratu honi buruz sortzen duen dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, Euskarabidearekin koordinatzeko soilik dena kenduta.

3.3. Lantaldea.

Zerbitzua behar bezala emateko, enpresa adjudikaziodunak lantalde egokia eratu beharko du. Taldeak, gutxienez, profil hauek izan beharko ditu:

a) Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den pertsona bat.

Proiektuaren koordinazio orokorraz, kontratazioez, aseguruaz, lanen kronogramaren diseinuaz eta jardunaldiaren balorazio-txostena aurkezteaz arduratuko da. Euskarabidearekin lankidetzan arituko den solaskidea izanen da, eta une oro jardueraren jarraipen zehatza egin ahal izatea ziurtatuko du.

Euskara izanen da Euskarabidearekin erabiliko duen lan-hizkuntza.

Bete beharreko baldintzak:

- Unibertsitateko titulua.
- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia antzeko jarduerak koordinatzen/antolatzen.

b) Jardunaldia antolatzeke eta egiteko behar diren langileak.

Enpresa adjudikaziodunak behar adina pertsona kontratatuko ditu kontratuaren beharrei behar bezala erantzuteko.

Bete beharreko baldintzak:

- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 6 hilabeteko esperientzia antzeko lanetan.

Lanak hasi aurretik, enpresak honako hauek aurkeztu beharko ditu: jarduera gauzatzeaz behin betiko arduratuko diren lantaldeko kide guztien izen-abizenak, adina, nortasun-agiria, titulazio akademikoa eta lan-esperientzia frogatzen dituen dokumentazioa, bai eta euskararen C1 ezagutza-maila (edo baliokidea) frogatzen duen dokumentua ere.

3.4. Antolaketa eta funtzionamendua:

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du jarduerak egiten diren bitartean honako ekintza hauek egiteko:

- b) Lanak aurkeztutako proposamenaren arabera garatzea.
- c) Euskarabideak egokitzen jotzen dituen kontrol- eta jarraipen-bileretan parte hartzea.
- d) Proiektua gauzatzean eragin negatiboa izan dezakeen edozein gorabehera idatziz jakinaraztea Euskarabideari. Horretarako, Euskarabideak dagokion erabakia hartu beharko du.
- e) Egindako lanen ondorioz agiri honetan eskatutako dokumentazioa egitea eta aurkeztea, dokumentu honetan deskribatutako betekizunen arabera.

Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den pertsonak egingen du koordinazioa Euskarabidearekin. Pertsona hori solaskide bakarra izanen da Euskarabidearekin, eta enpresa adjudikazioduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean emateko ahalmena izanen du.

Enpresa adjudikaziodunak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa ekarriko du kontratura, eta zerbitzuaren antolaketaren, garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen arduraduna izanen da, eta bere gain hartuko du enpresa-arriskua.

Zerbitzuari atxikitako langileen zuzendaritza- eta funtzionamendu-ahalmena enpresa adjudikaziodunaren eskumen eskusiboa da.

24. 3. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IPARRALDEKO SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da sektore pribatuko enpresetan euskara sustatzea eta bultzatzea Nafarroako eskualde hauetan: Baztan-Bidasoa, Pirinioak eta Pirinioaurrea, Sakana eta Larraun-Leitzaldea 2026. urtean.

Proiektua enpresetara egindako bisiten bidez garatuko da.

2. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA.

Kontratu honen helburu nagusia da Nafarroako eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea. Horretarako, sektore pribatuko enpresak bisitatuko dira Nafarroako hainbat eskualdetan:

- Baztan-Bidasoa, Pirinioak eta Pirinioaurrea 2025. urtean.
- Sakana eta Larraun-Leitzaldea 2026. urtean.

Enpresa adjudikaziodunak honako hauek egin beharko ditu:

- Proiektua definitzea: eskualdeen mapaketa sozioekonomikoa, helburuak, edukiak, harremanetan jarri beharreko enpresen profilak, sustapen-programaren metodologia, erabili beharreko informazio-euskarriak eta kronograma.
Proiektua aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izanen da, kontratua sinatzen denetik aurrera.
Euskarabideak baliozkotu edo zuzenduko du proiektua.
- Proiektua koordinatzea eta gauzatzea eta haren jarraipena egitea sektore pribatuko enpresetan eskualde hauetan: Baztan-Bidasoa, Pirinioak, Pirinioaurea, Sakana eta Larraun-Leitzaldea.
- Enpresetan euskara sustatzeko programak egitea. Sustapen-programa gauzatzeko, enpresa bakoitzarekin aldeztu aurretik harremanetan jarriko da, eta, gutxienez, bi aldiz bisitatuko da enpresa, enpresei informazioa eta motibazioa emateko, hizkuntza-kudeaketan euskara kontuan hartzen.
- Era berean, enpresetan euskararen erabilera sustatzeko laguntza publikoei eta baliabideei buruzko informazioa emanen da bisitetan (Euskarabideak hornituko du informazio hori), bai eta hizkuntza-kudeaketan euskara kontuan hartzen duten enpresentzat dauden beste baliabide batzuei buruzkoa ere.
- Erakunde adjudikaziodunak gutxienez 35 enpresatan egin beharko ditu sustapen-programak 2025ean, eta 55 enpresatan 2026an. Horiek hautatzeko, Euskarabidearekin koordinatuta ezarritako irizpideei jarraituko zaie.
- Bisita horietarako informazio-euskarriak sortzea.

3. ADJUDIKAZIODUNAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK.

Kontratu honen betebeharrak preskripzio teknikoaren atal honetan ezarritakoa betetzetik eta baldintza zehatzen agiritik eratorritakoak dira.

3.1. Koordinazio- eta jarraipen-lanak.

Proiektua behar bezala gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak Euskarabideak beharrezkotzat jotzen dituen koordinazio- eta jarraipen-bilera guztiak eginen ditu.

Koordinazio orokorra eta adjudikazioaren ondoriozko lanak euskaraz izanen dira; beraz, enpresa adjudikaziodunak behar diren baliabideak jarri beharko ditu baldintza hori betetzeko.

3.2. Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa lantzea.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honetako lanak amaitu ondoren, dokumentazio hau entregatu beharko dio Euskarabideari:

- 2025eko abenduaren 10a baino lehen:
 - ✓ Urtean egindako lanei buruzko memoria.
- 2026ko uztailaren 30a baino lehen:

Azken memoria, egindako lanei eta lortutako emaitzei buruzkoa. Informazio hori eremu geografikoen eta jarduera-sektoreen arabera emanen da. Bestalde, memoria horretan, enpresa adjudikaziodunak proiektua hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen ondorioak eta neurriak ere jaso beharko dira.

Enpresa adjudikaziodunak kontratu honi buruz sortzen duen dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da, Euskarabidearekin koordinatzeko soilik dena kenduta.

3.3. Lantaldea.

Zerbitzua behar bezala emateko, enpresa adjudikaziodunak lantalde egokia eratu beharko du. Taldeak, gutxienez, profil hauek izan beharko ditu:

- **Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den pertsona bat.**

Proiektuaren koordinazio orokorrak, kontratazioez, aseguruiez, bisiten kronogramaren diseinuaz eta bisiten ondoren balorazio-txostena aurkezteaz arduratuko da.

Bete beharreko baldintzak:

- Unibertsitateko titulua.
- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia antzeko jarduerak koordinatzen/antolatzen.

- **Kontratu honetako sustapen-programak gauzatzeko enpresak bisitatuko dituzten pertsonak:**

Enpresa adjudikaziodunak behar adina pertsona kontratatuko ditu kontratuaren beharrei behar bezala erantzuteko.

Bete beharreko baldintzak:

- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 6 hilabeteko esperientzia antzeko lanetan.

Lanak hasi aurretik, enpresak honako hauek aurkeztu beharko ditu: jarduera gauzatzeaz behin betiko arduratuko diren lantaldeko kide guztien izen-abizenak, adina, nortasun-agiria, titulazio akademikoa eta lan-esperientzia frogatzen dituen dokumentazioa, bai eta euskararen C1 ezagutza-maila (edo baliokidea) frogatzen duen dokumentua ere.

Enpresa adjudikaziodunak prestakuntza espezifikoa emanen die enpresak bisitatuko dituzten pertsona guztiei bisitak prestatzeko eta egokitzeko, eduki honekin: nola antolatu eta egituratuko diren bisitak, zer informazio mota lortu nahi den, nola ezagutarazi Euskabidearekin adostutako informazioa, nola bildu informazioa eta nola gorde jasotako informazioa.

3.4. Antolaketa eta funtzionamendua.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du sustapen-programa egiten den bitartean honako ekintza hauek egiteko:

- f) Programa aurkeztutako proposamenaren arabera garatzea.

- g) Koordinatzaileen bisiten programa zehaztea, eta bisitak egingen dituzten pertsonekin prestatzea.
- h) Bisitak aurreikusitako moduan egitea.
- i) Euskarabideak egokitzea jotzen dituen kontrol- eta jarraipen-bileretan parte hartzea.
- j) Proiektua gauzatzean eragin negatiboa izan dezakeen edozein gorabehera idatziz jakinaraztea Euskarabideari. Horretarako, Euskarabideak dagokion erabakia hartu beharko du.
- k) Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa prestatzea eta aurkeztea, dokumentu honetan deskribatutako betekizunen arabera.

Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den pertsonak egingen du koordinazioa Euskarabidearekin. Pertsona hori solaskide bakarra izanen da Euskarabidearekin, eta enpresa adjudikazioduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean emateko ahalmena izanen du.

Enpresa adjudikaziodunak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa ekarriko du kontratura, eta zerbitzuaren antolaketaren, garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen arduraduna izanen da, eta bere gain hartuko du enpresa-arriskua.

Zerbitzuari atxikitako langileen zuzendaritza- eta funtzionamendu-ahalmena enpresa adjudikaziodunaren eskumen eskusiboa da.

25. 4. SORTARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA: EUSKARA SUSTATZEA ETA BULTZATZEA IRUÑERRIKO SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea da euskara sustatzea eta bultzatzea Iruñerriko sektore pribatuko enpresetan:

- Iruña 2025. urtean.
- Iruñerria (Iruña izan ezik) 2026. urtean.

Proiektua enpresetara egindako bisiten bidez garatuko da.

2. EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA.

Kontratu honen helburu nagusia da Nafarroako eremu sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera sustatzea. Horretarako, sektore pribatuko enpresak bisitatuko dira Iruñerrian:

- Iruña 2025. urtean.
- Iruñerria (Iruña izan ezik) 2026. urtean.

Enpresa adjudikaziodunak honako hauek egin beharko ditu:

- Proiektua definitzea: eskualdeen mapaketa sozioekonomikoa, helburuak, edukiak, harremanetan jarri beharreko enpresen profilak, sustapen-programaren metodologia, erabili beharreko informazio-euskarriak eta kronograma.

Proiektua aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izanen da, kontratua sinatzen denetik aurrera.

Euskarabideak baliozkotu edo zuzenduko du proiektua.

- Proiektua koordinatzea eta gauzatzea eta haren jarraipena egitea Iruñerriko sektore pribatuko enpresetan.
 - Enpresetan euskara sustatzeko programak egitea. Sustapen-programa gauzatzeko, enpresa bakoitzarekin aldeztu aurretik harremanetan jarriko da, eta, gutxienez, bi aldiz bisitatuko da enpresa, enpresei informazioa eta motibazioa emateko, hizkuntza-kudeaketan euskara kontuan har dezaten.
- Era berean, enpresetan euskararen erabilera sustatzeko laguntza publikoei eta baliabideei buruzko informazioa emanen da bisitetan (Euskarabideak hornituko du informazio hori), bai eta hizkuntza-kudeaketan euskara kontuan hartzen duten enpresentzat dauden beste baliabide batzuei buruzkoa ere.
- Erakunde adjudikaziodunak gutxienez 40 enpresatan egin beharko ditu sustapen-programak 2025ean, eta 60 enpresatan 2026an. Horiek hautatzeko, Euskarabidearekin koordinatuta ezarritako irizpideei jarraituko zaie.
 - Bisita horietarako informazio-euskarriak sortzea.

3. ADJUDIKAZIODUNAREN BERARIAZKO BETEBEHARRAK.

Kontratu honen betebeharrak preskripzio teknikoen atal honetan ezarritakoa betetzetik eta baldintza zehatzen agiritik eratorritakoak dira.

3.1. Koordinazio- eta jarraipen-lanak.

Proiektua behar bezala gauzatzeko, enpresa adjudikaziodunak Euskarabideak beharrezkotzat jotzen dituen koordinazio- eta jarraipen-bilera guztiak egingen ditu.

Koordinazio orokorra eta adjudikazioaren ondoriozko lanak euskaraz izanen dira; beraz, enpresa adjudikaziodunak behar diren baliabideak jarri beharko ditu baldintza hori betetzeko.

3.2. Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa lantzea.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honetako lanak amaitu ondoren, dokumentazio hau entregatu beharko dio Euskarabideari:

- 2025eko abenduaren 10a baino lehen:
 - ✓ Urtean egindako lanei buruzko memoria.
- 2026ko uztailaren 30a baino lehen:
 - ✓ Azken memoria, egindako lanei eta lortutako emaitzei buruzkoa. Informazio hori eremu geografikoen eta jarduera-sektoreen arabera emanen da. Bestalde, memoria horretan, enpresa adjudikaziodunak proiektua hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen ondorioak eta neurriak ere jaso beharko dira.

Enpresa adjudikaziodunak kontratu honi buruz sortzen duen dokumentazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz idatzi beharko da, Euskarabidearekin koordinatzeko soilik dena kenduta.

3.3. Lantaldea.

Zerbitzua behar bezala emateko, enpresa adjudikaziodunak lantalde egokia eratu beharko du. Taldeak, gutxienez, profil hauek izan beharko ditu:

- **Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratzen den pertsona bat.**

Proiektuaren koordinazio orokorraz, kontratazioez, aseguruez, bisiten kronogramaren diseinuaz eta bisiten ondoren balorazio-txostena aurkezteaz arduratuko da.

Bete beharreko baldintzak:

- Unibertsitateko titulua.
- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 2 urteko esperientzia antzeko jarduerak koordinatzen/antolatzen.
- **Kontratu honetako sustapen-programak gauzatzeko enpresak bisitatuko dituzten pertsonak:**

Enpresa adjudikaziodunak behar adina pertsona kontratatuko ditu kontratuaren beharrei behar bezala erantzuteko.

Bete beharreko baldintzak:

- Euskararen C1 maila (edo baliokidea) frogatzen duen titulua.
- Gutxienez 6 hilabeteko esperientzia antzeko lanetan.

Lanak hasi aurretik, enpresak honako hauek aurkeztu beharko ditu: jarduera gauzatzeaz behin betiko arduratuko diren lantaldeko kide guztien izen-abizenak, adina, nortasun-agiria, titulazio akademikoa eta lan-esperientzia frogatzen dituen dokumentazioa, bai eta euskararen C1 ezagutza-maila (edo baliokidea) frogatzen duen dokumentua ere.

Enpresa adjudikaziodunak prestakuntza espezifiko emanen die enpresak bisitatuko dituzten pertsona guztiei bisitak prestatzeko eta egokitzeke, eduki honekin: nola antolatu eta egituratuko diren bisitak, zer informazio mota lortu nahi den, nola ezagutarazi Euskabidearekin adostutako informazioa, nola bildu informazioa eta nola gorde jasotako informazioa.

3.4. Antolaketa eta funtzionamendua.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du sustapen-programa egiten den bitartean honako ekintza hauek egiteko:

- l) Programa aurkeztutako proposamenaren arabera garatzea.
- m) Koordinatzaileen bisiten programa zehaztea, eta bisitak eginen dituzten pertsonekin prestatzea.
- n) Bisitak aurreikusitako moduan egitea.
- o) Euskarabideak egokitzeak jotzen dituen kontrol- eta jarraipen-bileretan parte hartzea.

p) Proiektua gauzatzean eragin negatiboa izan dezakeen edozein gorabehera idatziz jakinaraztea Euskarabideari. Horretarako, Euskarabideak dagokion erabakia hartu beharko du.

q) Proiektua gauzatzearen ondoriozko dokumentazioa prestatzea eta aurkeztea, dokumentu honetan deskribatutako betekizunen arabera.

Proiektua zuzentzeaz eta koordinatzeaz arduratuko den pertsonak egingen du koordinazioa Euskarabidearekin. Pertsona hori solaskide bakarra izanen da Euskarabidearekin, eta enpresa adjudikazioduneko gainerako langileei laneko aginduak eta jarraibideak zuzenean emateko ahalmena izanen du.

Enpresa adjudikaziodunak bere zuzendaritza eta kudeaketa propioa ekarriko du kontratura, eta zerbitzuaren antolaketaren, garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen arduraduna izanen da, eta bere gain hartuko du enpresa-arriskua.

Zerbitzuari atxikitako langileen zuzendaritza- eta funtzionamendu-ahalmena enpresa adjudikaziodunaren eskumen eskusiboa da.

26. LOTE GUZTIETARAKO PRESKRIPZIO TEKNIKO KOMUNAK

26.1. Istripuak eta aseguruak.

Kontratu honetako programan bisitak egiten dituzten pertsonak izan dezaketen edozein istripu edo gertaera kaltegarriari aurre egiteko, enpresa adjudikaziodunak, programa bere osotasunean estaltzeko, nahitaezko erantzukizun zibileko aseguruak izan beharko ditu.

Lan-istripuei, segurtasun-neurriei eta Gizarte Segurantzari buruzko guztia enpresa adjudikaziodunaren kontura izanen da.

26.2. Doikuntzak atzerapenen aurrean.

Baldintza-agiri honetan jasotako betekizunen bat betetzean sor daitezkeen zailtasunen edo atzerapenen aurrean enpresa adjudikaziodunak egokitzapenen bat egin behar badu, aldez aurretik jakinarazi beharko dio Euskarabideari, hark aldez aurretik onar dezan.

26.3 Legezko betebeharrak.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratu honen xederako enplegatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu lan legeriari, gizarte segurantzari, laneko arriskuen prebentzioari, emakumeen eta gizonen berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari dagokienez.

Berariaz saihestu beharko du, nolanahi ere, langileak legez kanpo lagatzea.

26.4. Proiektuaren kalitate teknikoa.

Enpresa adjudikazioduna izanen da egindako lanen kalitate teknikoaren eta egindako prestazioen eta zerbitzuen erantzulea, bai eta kontratua egikaritzean izandako omisioak, hutsegiteak, metodo desagokiak edo zuzenak ez diren konklusioak direla-eta administrazioari edo hirugarren alderdiei eragindako ondorioena ere. Ikusten diren akatsak Administrazioaren agindu baten edo Administrazioak ezarritako baldintzen ondorio zuzenak direnean baino ez da erantzukizunetik salbuetsiko.

26.5. Enpresaren kargurako zerbitzu osagarriak

Enpresa adjudikaziodunak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu osagarriak emanen ditu, ordainketa osagarria jasotzeko eskubiderik gabe, hala nola lan- edo informazio-bileretara joatea. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

III. ZATIA – ERANSKINAK

I. ERANSKINA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EUSKARABIDEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO.

II. ERANSKINA.- FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

III. ERANSKINA.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA

IV. ERANSKINA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU ADIERAZTEKO*

V. ERANSKINA.- BATERAKO PARTE-HARTZEAREN EREDUA

I. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EUSKARABIDEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO.

..... jauna/andreak, zenbakidun
NANa duenak,-(a)ren ordezkari
(.....IFK), / bere izenean (ezabatu behar ez dena), bere
erantzukizunpean adierazten du:

1.) Berak edo ordezkatzeko duen entitateak betetzen dituela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 14. artikuluan jarduteko, gaitasun juridikoa edukitzeko eta ordezkari izateko ezarritako baldintzak.

2.) Kontratazioa arautzen duten agiriak ezagutzen eta onartzen dituela eta haiek gauzatzeko hitza ematen duela, baldintzei hertsiki loturik.

☐ 1. sorta

☐ 2. sorta

☐ 3. sorta

☐ 4. sorta

3.) Ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan kontratatzeke debekurako ezarritako zergatietako batean sartuta.

4.) Eguneratuak dituela Gizarte Segurantzaren eta zerga arloko bere betebeharrak guztiak.

5.) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, eta honako hau dela kontratuko jardueren esparruko negozio-bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldietan:

1. SORTA	
URTEA	ZENBATEKOA
2022	 euro
2023	 euro
2024	 euro

2. SORTA	
URTEA	ZENBATEKOA
2022	 euro
2023	 euro
2024	 euro

3. SORTA	
URTEA	ZENBATEKOA
2022	 euro
2023	 euro
2024	 euro

4. SORTA	
URTEA	ZENBATEKOA
2022	 euro
2023	 euro
2024	 euro

6.) Betetzen dituela kontratuko prestazioak gauzatzeko eskaturiko lege baldintzak.

7.) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak eta, ondorio horietarako, adierazten du ondoko zerbitzuak bete dituela:

URTEA	XEDEA	HARTZAILEA	ZENBATEKOA
2022			

2023			
2024			

*Adierazpen honekin batera aurkezten dira aipaturiko zerbitzuen frogagiriak, lan horien hartzaile izan diren entitateek emanak.

8.) Nafarroako Foru Komunitateko edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela prozeduraren ondoriozko gorabehera guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruari uko eginik.

9.) Helbide elektronikoa hau ematen duela, prozeduraren zeinahi faserekin loturiko jakinarazpenak bide telematikoen bidez jasotzeko ahal izateko:
.....

10.) Aurreikusten duela ondoko prestazioak azpikontratatzea. Ondorio horietarako, azpikontratisten adostasun adierazpenak atxikitzen dira (soilik azpikontratazioa aurreikusten bada).

PRESTAZIOA	AZPIKONTRATISTA

Adierazpen honetan aipatzen diren inguruabarrak betetzen dira eskaintzak aurkezteko epearen bukaeran.

(Tokia, eguna eta sinadura)

II. ERANSKINA

FORMULEN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

a) Proiektuaren zuzendariaren titulazioa (gehienez 15 puntu):

- Hizkuntza-plangintzarekin lotutako titulazioa: 12 puntu.
- Euskararen C2 ziurtagiria. 3 puntu.

b) Irizpide sozialak. Gehienez 10 puntu.

Desgaitasuna dutenak kontratatzea.

% 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak kontratatzeagatik:

- Pertsona bat: 5 puntu
- Pertsona bat baino gehiago: 10 puntu.

Desgaitasuna dutenak kontratatzea:	Izen-abizenak

III. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

_____ jaunak/andreak,
_____ zenbakidun NANA edo IFZ duenak (helbidea:
_____; telefono zk.: _____), nire
izenean edo _____(r)en ordezkari arituz, **eremu
sozioekonomikoan** euskara sustatzeko jarduerak egiteko laguntza teknikoaren
kontratazioari dagozkion proiektua eta administrazio klausulen eta zehaztapen
teknikoen agiria ezaguturik, hitzematen dut zehatz-mehatz beteko dudala baldintza
horietan ezarritakoa eta, orobat, eskaintza hau egiten dut:

PREZIOA

1. sorta: _____ euro (gehi BEZa).

2. sorta: _____ euro (gehi BEZa).

3. sorta: _____ euro (gehi BEZa).

4. sorta: _____ euro (gehi BEZa).

Lote guztiak: _____ euro (gehi BEZa).

(tokia, data eta sinadura)

IV. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
LIZITATZAILEEN ERREGISTROAN JASOTAKO DATUAK EZ DIRELA ALDATU
ADIERAZTEKO*

Izena: _____ NAN zenbakia: _____ ,
Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailen Erregistroan _____
zenbakiarekin izena eman duen enpresaren _____ gisa (1), neure
erantzukizunpean aitortzen dut Lizitatzailen Erregistroak dituen enpresaren datuak
indarrean daudela eta ez direla deus ere aldatu, eta Nafarroako Foru Komunitateko
Lizitatzailen Erregistroko izena ematearen ziurtagirian, _____ zenbakiko
espedientean, agertzen direnak berak direla. Ziurtagiria agiri honi erantsia dago eremu
sozioekonomikoan euskara sustatzeko jarduerak egiteko laguntza teknikoaren zerbitzua
kontratatzeko lizitazioan parte hartu ahal izateko.

(1) Adierazi administratzailea ala ahalduna den.

(tokia, data eta sinadura)

* Informazio gehiago hemen: www.nafarroa.eus (urratsak: zerbitzuen katalogoan,
kontratazioen barruan eta haiekin zerikusia duten esteketan, jo Lizitatzailen
Borondatezko Erregistrora)

BATERAKO PARTE-HARTZE EREDUA

.....jaunak/andreak,NANa/IFZ duenak,
jakinarazpenetarako helbide hau duenak:
.....
....., PK:, herria:, telefonoak:
....., bere izenean /
sozietatearen ordezkari gisara (dagokion bezala), IFZ:

Talde batean elkarturik parte hartzen duten lizitatzailleek aurkeztuz gero eskaintza, adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

o Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten dira.

☐ Bai ☐ Ez

o Talde batean elkarturik aurkezten dira. Hala bada, adierazi bakoitzaren parte-hartze maila zein den.

☐ Bai ☐ Ez

Enpresaren izena..... ~~=~~Partaidetza %

Enpresaren izena..... ~~=~~Partaidetza %

(Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzeke debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuei buruzko Foru Legeak, 22.1.i artikuluan).

(Tokia, eguna eta lizitatzaillearen edo lizitatzailleen sinadura)